

GASTEIZKO EKINTZAILEEI LAGUNTZEKO PLANAREN AURKEZPENA ARABA EKINEAN SAREARENTZAT

Posted on 19/01/2024 by Naider

Category: [Albistea](#)

Tags: [Ekintzaitza eta lehiakortasuna](#), [Ensantxea](#), [Gasteiz](#)

Atzo, urtarrilak 18, NAIDERek [Gasteizko 2023-2030erako Ekintzaitzako Plan Integralaren aurkezpenean](#) parte hartzeko aukera izan zuen. Plan hori prestatzeko, euskal hiriburuko Udaleko [Ekonomia Sustapen, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sailarekin](#) lankidetzan aritu zen. Ekitaldia, arloko zinegotziarekin batera, Europa Biltzar Jauregian egin zen, [Araba Ekinean](#) sareko eragileak gerturatu zirela.

Plan berriak Gasteizko Udalak datozen zazpi urteetan garatu beharreko proiektu estrategikoak ezartzen ditu. Dokumentua sei helburu estrategikotan egituratzen da, eta, hasteko, hiria ingurune ekintzaile gisa aktibatzen da, eta horren mugarri nagusia [Zabalgunea Eko Barruti Ekintzailea](#) proiektuaren garapena da. Halaber, industriaren eta hari lotutako zerbitzuen sektorean ekintzaitza espezializatua bultzatzeko ekintzak aurreikusten ditu, bi ekimen nabarmenekin: "Jundiz 5.0" eta "Gamarra-Betoño Berpiztu". Hirugarren helburu bat ekintzaitza bultzatzeko neurriak abian jartzea da, ekintzaitza-ahalmen handia duten sektore emergenteetan, besteak beste, "Basaldea 1", "Circular Hub", "Urban Lab" eta "Sormen industriak" proiektuekin.

Ibilbide-orri berriaren barruan sartzen dira, halaber, ekintzaitzaren funtsezko esparruetan laguntza eraginkorra ematea, espirtu ekintzailea sustatzea, kultura ekintzailea eta hirian ekiteko gaitasuna, bai eta ekosistema ekintzailearen eragile garrantzitsuekiko elkarlaneko gobernantza indartzea ere.





